



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP. KODEA 2024PUNT0003 COD. EXP.	
EXPEDIENTEA EXPEDIENTE	OHIKO KULTUR JARDUERAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK
TITULARRA TITULAR	AZKOITIKO UDALA
IFK CIF	P2001800H

ALKATEAREN DEKRETUA

ANA AZKOITIA URTEAGA, AZKOITIKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUAK, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985ko Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Udal honetako 2024ko aurrekontutan, Azkoitiko Udalak Kultur elkarteei diru laguntza ematea aurreikusten dela

KONTUAN HARTURIK

Departamentuko zerbitzu teknikoak egindako txostenaren arabera:

AURREKARIAK

I.- Udalbatzak 2022ko abenduaren 1ean Azkoitiko udalaren dirulaguntzen oinarri orokor eta espezifikoa arautzaileak onartu zituen (GAO, 6 zk. 2023ko urtarrilaren 10a). Oinarri hauek jendaurrean izan eta alegaziorik aurkeztu ez zenez, behin betikoz onetsi ziren (GAO, 54 zk. 2023ko martxoak 20a).

Oinarri horietan jasotzen dira Azkoitiko Udalerrian kultur, kirol eta aisialdi jardueren dirulaguntzak emateko Kultura eta Kirol departamentuak kudeatzen duen honako dirulaguntzen oinarri espezifikoa: Azkoitiko Udalerrian **kultur jarduerak** sustatzeko dirulaguntzak

II.- 2023ko abenduaren 14an Azkoitiko Udalbatzak onartu zuen 2024ko udal aurrekontua. 2023ko abenduaren 20an, behin behineko iragarkia kaleratu zen GAO-n, eta 2024ko urtarrilaren 23an, erreklamaziorik egon ezean, behin betiko onartu.

Prozedura administratiboa jarraiki, hurrengo izapidea da diru laguntza hori eskatzeko epea irekitzea. kultur jarduerak sustatzeko diru laguntzak eskatzeko azken eguna, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu denetik, hilabeteko epea izango da.

Aipatutako diru laguntzak eskatu ahal izango dira iragarkia GAO-n kaleratzen den hurrengo egunetik aurrera. Iragarki horrek Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23. artikuluen 2. atalean ezarritako gutxienezko edukiak jaso behar ditu.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

PROPOSATZEN DUT

LEHENA: Hori horrela, kultur teknikari honen proposamena da aipatutako diru laguntza eskatzeko epea irekitzea egindako proposamenenaren arabera eta ondorengo deialdia Udaleko web orrian eta BDNS bitartez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

BIGARRENA: Beste aldetik, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23. artikulua eta aipatu Legearen garapenerako erregelamenduak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 59. artikulua xedaturikoarekin bat, diru-laguntza emakida arautuko duten oinarriak onetsita, horiek emateko deialdiak banan-banan onartu behar direla xedatzen duela, Legearen 23. artikuluen 2. atalak, deialdiak jaso beharreko edukia zehazten duelarik.

HIRUGARRENA: 2024 ekitaldirako Azkoitiko kultur jardueri diruz laguntzeko ondorengo aurrekontu partidan jasotako diru-kopurua banatzeko beraz, diru-laguntza emakidaren jardunbideari hasiera eman behar zaiola, hori lehiaren araubidez egingo delarik, goian adieraziriko legediak xedaturikoarekin bat. Partida:

1.3100.481.334.00.01	Kultur elkarteei diru laguntzak	25.000 €
----------------------	---------------------------------	----------

Beraz, honako hau

EBATZI DUT

RESUELVO

LEHENA.- kultur eta aisialdi jardueri diru-laguntzak lehia araubidez emateko 2024 ekitaldiko deialdia onartzea.

BIGARRENA.- 2024 ekitaldiari dagokion deialdia Udaleko web orria argitaratzea eta BDNS bitartez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ondoko edukiarekin:

1.- Diru-laguntzaren xedea:

Irabazi asmorik gabeko Azkoitiko kultur edo aisialdiko talde zein elkarteei diru laguntzak emateko oinarriak arautzea da, aurten sektore horietan egitasmo eta jarduerak burutzeko. Jarduera hauek, beti ere, bat egin behar dute Azkoitiko Udalaren kultura eta aisialdirako programen helburuekin.

Diru laguntzak ondorengo atalen baterako eskatu ahal izango dira:

PRIMERA: Aprobar la convocatoria para el ejercicio 2024 en régimen de concurso para la concesión de subvenciones para la realización de diversos programas de cultura y el tiempo libre.

SEGUNDA: Publicar la convocatoria correspondiente al ejercicio de 2024 en el Boletín Oficial de Gipuzkoa a través de BDNS y en la página web, con el siguiente contenido:

1. Objeto de las subvenciones

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la solicitud y concesión de ayudas económicas a entidades y grupos culturales y de tiempo libre sin ánimo de lucro del municipio de Azkoitia para la realización de diversos programas y actividades coincidan con los objetivos de los distintos programas del área de cultura y tiempo libre del Ayuntamiento de Azkoitia.

Las ayudas económicas se podrán solicitar para alguno de los siguientes apartados:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Kultur/aisialdiko egitasmo eta jarduerak orokorrean.
- Kultur truke eta senidetze jarduerak.

2. Diru laguntzen zenbatekoak

Diru-laguntzak emateko gastua onartzea ondokoaren arabera:

1.3100.481.334.00.01 Kultur elkarteei diru laguntzak 25.000 €

3.- Diru-laguntza eskatzeko bete behar diren epeak eta baldintzak:

Diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte:

- Legez eraturako erakunde, elkarte eta taldeak.
- Kultur edo aisialdi jarduerak burutzen dituzten gizabanakoak edo helburu bererako elkartutako pertsona taldeak.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da eta hilabeteko epea izango du.

Diru laguntza hauek beste batzuekin bateragarriak izan daitezke; horrela bada, jarduera bererako beste erakunde eta organismoei eskatutako diru-laguntzak adierazi behar dira.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Eskaera inprimakiak behar bezala bete eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztuko dira, besteak beste, Azkoitiko Udaleko web orriko tramiteak online atalaren bitartez (<https://azkoitia.eus/udala/tramiteak>) edo herri-tarren arreta zerbitzuan:

Helbidea: Herriko plaza z. g. 20720 AZKOITIA

- Programas y actividades culturales y de tiempo libre en general.
- Actividades de intercambio cultural y de hermanamiento.

2. Importe de la subvención

Para la concesión de estas subvenciones se aprobará las siguientes dotaciones:

1.3100.481.334.00.01 Subvenciones a asociaciones culturales 25.000 €

3. Requisitos y plazos para solicitar las subvenciones

Podrán acogerse a esta convocatoria:

- Las organizaciones, asociaciones y grupos legalmente constituidas.
- Las personas individualmente consideradas o los grupos de éstos que se reúnan para la realización de una determinada actividad cultural y de tiempo libre.

El plazo para presentar solicitudes comienza a partir del día siguiente de publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y tendrá una duración de un mes.

Estas subvenciones serán compatibles con otras que se puedan percibir, debiendo indicar si se ha solicitado subvención para la misma actividad a diferentes instituciones u organismos.

4. Cuando y donde presentar las solicitudes

Los formularios de solicitud se cumplimentarán correctamente y se presentarán en cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, a través, entre otros, de la sección de trámites online de la página web del Ayuntamiento de Azkoitia (<https://azkoitia.eus/udala/tramiteak>) o en el servicio de atención ciudadana:

Dirección: Herriko plaza z.g. 20720 AZKOITIA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Astelehenetik ostiralera: 07:30-15:30

Udako ordutegia: Ekainak 15-Irailak 15 (biak barne): 08:00-14:00

5- Aurkeztu beharreko agiriak.

Interesatutako pertsonak edo entitateek, udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute diru-laguntza eskaera. Inprimaki hori, interesatuek eskuragarri izango dute Herriarren Arreta Zerbitzuan eta Azkoitiko udaleko web orrian (www.azkoitia.eus).

5.1. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Zinpeko aitorpena; non beste batzorde, erakunde, organismo, eta abarrei egindako diru-laguntzen eskaerak jasoko diren, edo, hala badagokio, eman zaizkien diru-laguntzenak.
- Eskatzaileak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztapena (baldin eta lehendik aurkeztu ez bada edo aldaketaren bat egon bada).

5.2.- Eskatzaileari jakinarazten zaio Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo dituela datu-bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik oinarri hauetan ezarritako ondorengo baldintzak. Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak:

1. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia:
 - Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena.
2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta
3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra
 - Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean

De lunes a viernes: 7:30-15:30

Horario de verano: Del 15 de junio al 15 de septiembre (ambos incluidos): 08:00-14:00

5. Documentación a presentar.

Las entidades o las personas interesadas presentarán las solicitudes de ayudas en el impreso de instancia elaborado por el ayuntamiento, que se facilitará a todas las personas interesadas tanto en el Servicio de Atención a la Ciudadanía y en la página web municipal (www.azkoitia.eus).

5.1. Documentación a presentar:

- Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.
- Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otras solicitudes de subvención realizadas ante otros departamentos, instituciones, etc. y, en su caso, las subvenciones recibidas.
- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por el solicitante (siempre que no se haya entregado con anterioridad o que se haya producido algún cambio).

5.2. Se informa al solicitante, que el Ayuntamiento de Azkoitia va a verificar los siguientes requisitos establecidos en estas bases, desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. Los solicitantes tendrán la opción de oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberán presentar la documentación pertinente.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos:

1. Dirección General de la Policía:
 - Consulta y verificación de datos de identidad, de cada una de las personas demandantes de la ayuda.
2. Diputación Foral de Gipuzkoa y Haciendas forales:
 - Consulta de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
3. Tesorería General de la Seguridad Social:
 - Consulta de hallarse al corriente del cumplimiento



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

izateari buruzko kontsulta.

Eskaerekin batera ondorengo agiriak ekarri beharko dira:

a)Diru laguntza lehendabiziko aldiz eskatzen dutenak.

- Eusko Jaurlaritzako elkarte edo erakundeen erregistroan zein elkarte Udal-erregistroan errolatuta daudeneko ziurtagiria.
- Elkartearen Curriculum-Vitae: orain arte burututako jarduerak, helburuak, giza eta material baliabideak, ea.

b) Eskaera egiten duten talde edo elkarte guztiak:

- Diru sarrera eta gastuen urteko aurrekontua.
- Urteko jarduera-egitasmoa: Jarduerak egiteko epeak eta datak, metodologia, helburuak, zein biztanle-talderentzako pentsatu den, etab.
- Elkarteari buruzko txosten laburra, deialdi honetako seigarren ataleko puntuan zehaztutakoa jasoko duena.
- Diruz lagunduko diren egitasmoen iazko memoria. Bertan agertuko dira:
 - Jarduketa memoria, zer jarduera burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita.
 - Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egiten data, eta hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira.
 - Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
 - Jarduerak egiaztatzeko agirien dosierra (kartelak, prentsa oharrak etab.).

c)Eskaera norbanakoek aurkezten badute, edota eraketa finkoa ez duten taldeen izenean egiten bada:

de las obligaciones de la Seguridad Social.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a)Entidades o grupos que solicitan subvención por vez primera:

- Certificado de estar inscrito en el correspondiente Registro de Asociaciones o Entidades del Gobierno Vasco, así como en el Registro Municipal de Asociaciones
- Curriculum de la asociación: Actividades desarrolladas hasta la fecha, objetivos, medios personales y materiales, etc.

b)Todas las entidades o grupos solicitantes:

- Presupuesto anual de gastos e ingresos.
- Programa anual de actividades a desarrollar: plazos y fechas previstas para su realización, metodología, objetivos previstos, ámbito de población al que va dirigido, etc.
- Breve memoria de la entidad solicitante, haciendo referencia a los puntos expuestos en el punto sexto de estas bases.
- Memoria de la actividad o programa subvencionado correspondiente al año anterior a la que se solicite la subvención, que incluirá:
 - Una memoria explicativa de las actividades desarrolladas y de los resultados obtenidos.
 - Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión, y en su caso fecha de pago.
 - Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad, con indicación de su importe y procedencia.
 - Un dossier con la documentación gráfica que acredite la realización de las actividades programadas (carteles, folletos, recortes de prensa, etc.).

c)Cuando se presente la solicitud a título individual o en representación de grupos informales no inscritos se presentará la siguiente documentación:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Arduradun(ar)en NANaren fotokopia.
- Arduradun(ar)en edo taldearen Curriculum vitae.
- Programaren gastuen eta sarriren aurrekontua.
- Egitasmoari buruzko txosten laburra oinarri hauetako seigarren ataleko puntuan zehaztutakoa jasoko duena.
- Diruz lagunduko diren egitasmoen iazko memoria. Bertan agertuko dira:
- Jarduketa memoria, zer jarduera burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita.
- Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egiten data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira.
- Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Jarduerak egiaztatzeko agirien dosierra (kartelak, prentsa oharrik etab.).
- Fotocopia del DNI de la/s persona/s responsable/s.
- Curriculum de la/s persona/s responsable/s o del grupo.
- Presupuesto de gastos e ingresos del programa.
- Breve memoria del programa, haciendo referencia a los puntos expuestos en el punto sexto de estas bases.
- Memoria de la actividad o programa subvencionado correspondiente al año anterior a la que se solicite la subvención, que incluirá:
 - Una memoria explicativa de las actividades desarrolladas y de los resultados obtenidos.
 - Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión, y en su caso fecha de pago.
 - Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad, con indicación de su importe y procedencia.
 - Un dossier con la documentación gráfica que acredite la realización de las actividades programadas (carteles, folletos, recortes de prensa, etc.).

Agiriok ez aurkezteak diru laguntza jasotzeari uko egiten zaiola esan nahiko du. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutzeak diru laguntza hau, edo ondorengoak, jasotzeko eskubide galera ekarriko du.

Eskaera ondo bete gabe badago, edo agiriren bat falta bada, 15 eguneko epea emango da hutsunea betetzeko eta, epe honetan osatu ez bada, agiritegira bidaliko da besterik gabe.

Aurreko urteetan eskaria egin izan duten erakunde edo taldeek, datuetan aldaketarik izan badute, eskaria lehen aldiz egingo dutenei eskatutako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte

En todos los casos la no presentación de esta documentación supondrá la renuncia expresa a la percepción de la subvención. De igual manera, la ocultación o falseamiento de datos supondrá la pérdida del derecho a dichas subvenciones y en su caso a posteriores.

En el caso que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 15 días para la reparación de la carencia y, una vez transcurrido este plazo sin que se haya completado la solicitud, se procederá al archivo de la misma sin más trámites.

Las entidades o grupos que hayan presentado su solicitud en años anteriores sólo deberán presentar los documentos requeridos a aquellas asociaciones que lo hacen por vez primera en el caso de que se haya producido algún cambio en dichos documentos.

6.- Ebazteko eta jakinarazteko epea. Diru Laguntzak esleitzeko irizpideak

6.- Plazo de resolución y notificación. Criterios para adjudicar las subvenciones



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kultur teknikariak aurkeztutako egitasmoak aztertu eta ebaluatuko ditu zeinek erabakiko ditu lehentasunak eta egitasmoentzako zenbatekoak. Ondoren, behin betiko erabakiaren txostena egingo du. Eskaerak jasotzeko azken egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, proposamena Alkateak edo Herritarrak batzordeko lehendakariari, emango zaio honek aztertu eta onar dezan.

Ebazpena interesatuei idatziz jakinaraziko zaie eskaeran adierazitako eran: paperean ala elektronikoki.

Diru laguntzak emateko kontuan hartuko diren puntuak memoria laburrean edo eskariarekin batera ekarri beharreko txostenean jasotakoak dira, hain zuzen ere:

- Jardueraren kalitatea, jarduera-kopurua, bazkide-kopurua, etab. 15 puntu arte.
- Egitasmoaren onuradun kopurua. 10 puntu arte.
- Urteroko egitarauaren ekarpena herriaren bizitza soziokulturalari eta jarduera instituzionalean parte hartzea sustatzeari begira. 20 puntu arte.
- Elkarrekin edo taldeak bere esparruan erakutsi duen ibilbidea, jarraipena eta egonkortasuna. 10 puntu arte.
- Aurkeztu den programazioa herritar guztiei irekitzea. 10 puntu arte.
- Jarduera esparruan euskara erabiltzeko egindako ahalegina. 10 puntu arte.
- Elkarrekin diru-baliabideak eta eskatutako laguntzaren proportzioa elkarrekin baliabideekiko. 10 puntu arte.
- Emakume eta gizonezkoen partaidetza parekatua elkarrekin eta sustatzeko ahalegina jardueran. 10 puntu arte.

Las solicitudes serán examinadas y evaluadas por el técnico de Cultura donde se dictaminará la priorización y cuantía a subvencionar sobre los proyectos presentados, y emitirá su informe para su resolución definitiva. En el plazo de un mes a contar a partir del último día de la presentación de solicitudes, la propuesta será elevada a la consideración y en su caso aprobación del Alcalde o de la Presidente de la Comisión de Ciudadanía.

La resolución se notificará por escrito a los interesados en la forma indicada en la solicitud: papel o electrónica.

En la adjudicación de subvenciones se valorarán los siguientes puntos que deberán ser acreditados en la breve memoria o en su caso informe que se ha de entregar junto con la solicitud:

- La calidad del programa o actividad a realizar, número de actividades y de socios/as, etc. Hasta 15 puntos.
- El número de personas que se verán beneficiadas por el programa. Hasta 10 puntos.
- La contribución del programa anual desarrollado por la asociación o grupo solicitante al fomento de la vida sociocultural y la participación en actuaciones institucionales. Hasta 20 puntos.
- La trayectoria, continuidad y estabilidad demostrada por la asociación o grupo en el ámbito en el que desarrolla su acción. Hasta 10 puntos.
- La apertura de la programación presentada a la población en general. Hasta 10 puntos.
- El fomento dentro de su ámbito de actuación de la utilización del euskara. Hasta 10 puntos.
- Los recursos financieros de la entidad y la proporción de lo solicitado con relación a sus propios medios. Hasta 10 puntos.
- La participación paritaria entre hombres y mujeres en la asociación y el esfuerzo para lograrlo en la actividad cultural. Hasta 10



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Kultur jardueretatik elkarbizitza sustatzea eta indartzea. 5 puntua arte.

puntos.

- Promocionar y reforzar la integración desde la actividad cultural. Hasta 5 puntos.

7. Diru laguntzen ordainketa

Ordainketa bakarra egingo da, behin diru-laguntza ematea erabaki eta gehienez bi hilabeteko epean.

7. Pago de las subvenciones

Se efectuará un pago único tras el acuerdo de concesión de la subvención, en un plazo de dos meses.

8. Araudia

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako arauak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); Azkoitiko Udaleko Diru-laguntzen Oinarri Orokorrak eta Espezifikoak (GAO, 54 zk. 2023ko martxoak 20a).

8. Normativa

Para todo aquello no establecido en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en: la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre); el Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (Boletín Oficial del Estado de 25 de julio); las Bases Generales y Específicas de Subvenciones del Ayuntamiento de Azkoitia (BOG, nº 54, de 20 de marzo de 2023).

9. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez daiteke bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian eta Berraztertze Errekurtsoa deialdi honen ebazpenaren aurka hilabeteko epean.

9. Recursos

Contra la presente convocatoria cabe interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses y Recurso de Reposición contra la resolución de esta convocatoria en el plazo de un mes.

Epeak deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

El plazo comenzará al día siguiente a la publicación de esta convocatoria.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Kontuhartzailletza sailari jakinaraztea.

TERCERA: Comunicar dichos acuerdos al departamento de Intervención.

Erabaki honek amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu orde, edo aipatu errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldek, Administrazioak birjarpen errekursoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkezteko, birjarpen errekursoa tartekatuzko datatik kontatzen hasita.

Eta adierazitakoarekin ados nagoela adierazteko, Ebazpen hau sinatu dut egokiak diren ondorioetarako.

ALKATEAK



EKS | CSV: ESKU4d752988-7164-4dd0-a530-f3ff255834cf

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024PUNT0003-DEIALDIAREN DEKRETUA KULTURA DIRULAGUNTZ/DECRETO